

ESKULIBURUA

BIDEO EDIZIOA

CREASALUD



FARMA
MUNDI
MUNDI
FARMAZIALARIAK

Edizioa: **Farmamundi 2019.**

Diseinua eta maketazioa: **Labox Marketing y Comunicación.**

Lan hau **Creative Commons** lizentziarekin dago:



CC BY-NC-SA (Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin)

Lizentzia honek beste batzuei bide ematen die haren obran oinarri hartuz nahasi, egokitu eta eraikitzeko, helburuez-komertzialetarako, betiere egile-tza aitortuta eta sortzen diren lan berriak baldintza bereko lizentzia baten pean jarrita.

Finantzatzaileak:



AURKIBIDEA

1.	APLIKAZIOAREN FUNTZIONAMENDUA	4
2.	HASI AURRETIK	5
3.	FITXATEGIAK AUKERATU	6
4.	IZENBURUA JARRI	7
5.	KLIP BAKOITZAREN BANAKAKO EDIZIOA	8
6.	BIDEOA OSORIK EDITATZEA	13
7.	BIDEOA ESPORTATZEA	17
8.	ALDAKETAK ESPORTATUTAKO BIDEOAN	19

1 APLIKAZIOAREN FUNTZIONAMENDUA

Bideoak editatzeko tresna bat da Quik, oso intuitiboa eta erabilerraza. Tresna honen funtzionamendua ondo ulertzeko, urratsez urrats azalduko dugu nola erabili behar den aplikazioa.



Google Play Store-n doan eskura daiteke Quik.




2 HASI AURRETIK


Proiektu bat sortzen hasi aurretik, joan zaitez gora eta eskuinera, eta aukeratu konfigurazioari dagokion ikonoa, engranaje zuri baten bidez irudikatutakoa.

Konfiguratu aplikazioa modu egokian, bideoek kalitate nahikoa izan dezaten.

Ikonoaren gainean sakatzerakoan, aktibatu bideoak 1080p HD-n gordetzeko aukera. Bideoa kalitate profesionalen edo 60FPS-n gorde nahi izanez gero, horiek ere aktibatu ahal izango dituzu, baina, horretarako, aurrez 1080p HD aukera aktibatu behar duzu.



3 FITXATEGIAK AUKERATU




Hasteko, sakatu “+” ikono urdinaren gainean, behean eskuinean. Botoi horren bidez, zure bideoa sortzen hasiko zara, nahi dituzun fitxategiak (argazkiak edota bideoak) aukeratzuz.

“+” botoia sakatzen duzunean, leiho bat irekiko da fitxategiak aukeratzeko. Hainbat aukeraren artean hauta dezakezu: telefonoaren galeria, albumak, Google Photos,...

Zuk hautatutako ordenan antolatuko dira klipak.

Horrek ez du esan nahi behin betiko ordena izango denik; aurrerago ere klipak aldatu ahal izango dituzu, kronograman mugituz.

Bideoa editatzeko fitxategiak aukeratu-takoan, bideoa muntatzen has zaitezke; horretarako, sakatu OK botoi urdina, eta aplikazioaren menu nagusia irekiko da.




4 IZENBURUA JARRI


Lehenik, proiektuari izenburua jartzeko eskatuko dizu. Izenburua tituluaren hasieran agertuko da, irudiak edo fitxategiak agertu aurretik.

Izenbururik gabeko bideoa ere egin dezakezu, eta aurrerago aukeratu; horretarako, "**OMITIR**" botoia sakatu behar duzu.

Izenburua aukeratu ondoren (edo izenbururik gabe), aplikazioaren menu nagusia ikusi ahal izango duzu.



5 KLIP BAKOITZAREN BANAKAKO EDIZIOA



Klipak editatu ahal izateko eta *timelinea* ikusteko, sakatu irudiaren beheko aldean ageri den arkatzaaren ikonoaren gainean. Botoia sakatu ondoren, menu berri bat agertuko da, **klip bakoitza editatzeko**.

Timeline edo *kronograma* zure bideoa osatzen duten klipak kokatuta dauden denbora-lerroa da. Berrito antola ditzakezu, denbora-lerroaren gainean sakatuz eta mugituz.

Klip bakoitza editatzeko menuak hainbat tresna eskaintzen dizkigu: moztu, testua erantsi, musika desaktibatu,...

Menu horretan, hainbat elementu aurkituko dituzu:

1. Ikusten den **irudi nagusia** une honetan erreproduzitzen ari den klipa da.

2. Irudiak alde bakoitzean dituen **“+” ikonoen** bidez irudi horren aurretik edo atzetik klipak eransteko dira. Klipen gainean sakatzean, galeriatik gehituko dira.
3. Irudiaren azpian, klip bakoitza **editatzeko aukerak** daude, eta pixka bat aldatuko dira klipa bideoa bada edo argazkia bada.
4. Edizioari dagozkion ikonoen azpian dago **timelinea**; aurrez aukeratu ditugun bideoak ordenan kokatuta daude hor.
5. Azkenik, pantailaren beheko aldean bi ikono ikusiko dituzu: **erreproduzitzekoa** (gainean sakatuta, zein klipekin ari garenean ikusiko dugu) eta **errepikatzekoa** (bideo osoa errepikatuko du behin eta berriz).



Klip bakoitza editatu ahal izateko, editatu nahi duguna aukeratu behar dugu. Lehenago ere esan dugunez, bideoa edo argazkia den kontuan hartuta, aukera batzuk edo beste batzuk izango ditugu:

BIDEOA BADA

▶ TESTUA ERANTSI

Izenburua eransteko aukera hautatzen badugu, klip berri bat sortuko da, eta testua soilik ikusiko duzu. Bigarren aukera **legenda** da, eta erreproduzitzen ari den irudiaren gainean idatziko du testua.

▶ HIGHLIGHT

Highlightak bideoan garrantzitsua den zerbait nabarmentzeko aukera ematen duten etiketak dira.

▶ MOZTU

Kliparen ertz bakoitzeko irristagailu urdinak mugituz, kliparen zatiak moztu ditzakezu.

Quik programak zati batzuk aukeratzen ditu defektuz, baina ez dira beti egokienak izaten. Aukera hori desaktibatzea eta zatiak eskuz hautatzea gomendatzen dizugu.

▶ NAHASKETA

Defektuz, giro-musika eta kliparen audioa maila berean entzuten dira (elkarrizketa bat bada, deserosoa izan daiteke). Nahasketen ikonoaren gainean sakatzen badugu, potentzia modura igaroko da (kasu horretan, giro-musikaren bolumena jaitsiko da eta kliparen audioa hobeto entzungo da). Ikonoaren gainean sakatzen badugu

berriro, desaktibatu egingo da; kasu horretan, kliparen audioa ez da entzungo, eta giro-musika bai.

▶ BELOZIMETROA

Aukera hau GoPro kamera erabiltzen badugu soilik dago eskuragarri.

▶ DISEINUA

Diseinu automatikoak esan nahi du irudiak pantaila osoa hartzen duela. Diseinuaren ikonoaren gainean sakatzen badugu, doitzeko aukera ematen du.

▶ BIRATU

Aukera honek irudia guztiz biratzeko aukera ematen du.

▶ ABIADURA

Aukera honekin, bideoaren denbora azkartu edo murriztu ahal izango dugu.

▶ ZATITU

Aukera honek une horretan hautatuta dugun bideoaren klip osagarri bat sortzen du. Zatitu egiten du, eta elkarren atzean jartzen ditu *timelinen*.

▶ KENDU

Aukera honekin klipak ezabatu ditzakegu.

Klipen ediziotik menu nagusira itzultzeko, zure mugikorrean atzera egiteko botoia sakatu behar duzu.

Urrats erraz horrekin, aplikazioko menu nagusian sartuko zara, eta hiru atal aurkituko dituzu han: **gaiak, musika eta bideoa doitzeko**. Atal horiek bideo osoari aplikatuko zaizkio.

Bideoa argazkiekin eginez gero, testua eransteko, diseinatzeko, biratzeko eta kentzeko aukerak errepikatu egingo dira, baina beste bi aukera ere agertuko dira:

> **FOKUA**: aplikazioa argazkiaren zer gunetan zentratzea nahi dugun zehaztu ahal izango dugu.

> **IRAUPENA**: iraupena aldatzeko, botoiaren gainean sakatu behar dugu.



6 BIDEOA OSORIK EDITATZEA


GAIAK

Aurrebistaren azpiko lehenengo ikonoak BIDEOAREN ESTILOA hautatzeko aukera ematen du; asko daude, eta bakoitzak efektu desberdinak ditu!

Proba itzazu, eta aurkitu gustukoena.



Aukeratzen duzun estiloaren arabera, modu batera edo bestera agertuko dira argazkiak eta klipak.

Bideoa osorik editatzeko, hiru menu hauek izan behar dira kontuan: gaiak, musika eta bideoa doitzekoak.



MUSIKA

Musikari dagokion ikonoa musika-nota baten marrazkia duena da. Atal honetan, bideoa editatzeko hainbat abesti aukera daitezke. Hurrengo pantailari dagokion botoia sakatuta, musika-liburutegira joan gaitzke, eta programak berak dituen abestiak edo “nire musika” atalekoak aukera ditzakegu (gure mugikorraren galerian ditugun abestiak).



BIDEOA DOITZEKOAK

Aplikazioaren atal honetan, bideo osoari eragingo dioten doikuntzak egin ditzakezu. Hainbat aukera daude:


► IRAUPENA

Quik aplikazioak bideoaren azken iraupena luzatzeko edo laburtzeko aukera ematen du.

► FILMA

Aukera honetan, zure bideoak filmaren formatua (estandarra, itxura horizontala duena) izatea nahi duzun edo formatu bertikala edo karratua izatea nahi duzun aukeratu dezakezu.

“FILMA” formatua erabiltzea gomen datzen dugu. Edozein modutan, formatu bertikala saihestu behar dugu.



► MUSIKAREN HASIERA

Aukera honen bidez, musika zehazki zein unetan hastea nahi dugun aukera dezakegu. Audioaren grafikoa eskuinerantz edo ezkererantz mugituz, musika non hastea nahi dugun zehatz dezakegu.

► IRAGAZKIA

Kolore-efektuak eransteko erabiltzen da.

▶ LETRA

Aukera honen bitartez, tipografiaren hainbat letra eta itxura aukera ditzakezu.

▶ PALETA

Aukera honen bidez, hainbat marko aukera ditzakezu bideorako. Aurreko bi kasuetan bezala, funtzio estetiko hutsa du.


▶ OUTRO DESAKTIBATUA

Aukera honetan, aplikazioaren logotipoa ezabatu dezakezu, bideoaren amaieran ateratzen baita.


Gogoratu OUTRO beti desaktibatzeaz.

7 BIDEOA ESPORTATZEA

Esportatzeak behin betiko bideoa lortzea esan nahi du, eta karpeta baten eta gezi baten marrazkiak dituen ikono urdinaren gainean sakatuta lortzen da hori.



Esportatzeko ikonoa sakatzean, hainbat aukera agertuko dira pantailan. Bideoa sare sozialetan partekatu nahi badugu edo emailez bidali nahi badugu, **esteka partekatzeko** aukera hauta dezakegu.



Aldiz, bideoa gure mugikorreko galerian gorde nahi badugu, beste aukera hau hautatuko dugu: **gorde partekatu gabe**.

Edozein aukera hautatuta ere, esportazioa % 100era iritsi arte itxaron behar dugu; gure bideoa prest izango da orduan.

Partekatu gabe gordetzea gomendatzen dugu. Bideoa zure gailuan gordeko da, eta nahi duzun moduan erabili ahal izango duzu.

8 ALDAKETAK ESPORTATUTAKO BIDEOAN

Amaitu duzun bideo batean aldaketak egin nahi badituzu, Quik aplikazioak horretarako aukera ematen dizu, modu errazean: aplikazioa ireki behar da berriro, eta, pantaila nagusian, app honekin sortu dugun proiektua hautatu behar dugu.

Bideoa aldatzeko, sakatu behean eskutik dagoen hiru puntuen ikonoa, eta menu bat zabalduko da; aukeratu menu horretan **bikoizteko eta editatzeko** aukera.

Aldaketa egin ondoren, proiektua aplikazioan gordeko da berriro, eta, beraz, nahi beste aldaketa egin ahal izango dituzu.



CREASALUD